

B.1. KORRIKA kanten egileen biografiak.

- Aldizkaritxoak banatuko dizkiegu ikasleei, eta 1. eta 2. orrialdeko testuak irakurriko dituzte. Irakurri ondoren, bakarka, eskaintzen zaizkien esaldiak testuan kokatuko dituzte. Ariketa talde handian zuzenduko dugu.

ERANTZUNAK:

a-8; b-10; c-5; d-1; e-7; f-2; g-9; h-4; i-3; j-6.

- Ikasleek, taldetxotan, beste KORRIKA kanten egileak aukeratuko dituzte, eta, aldizkariko biografiak oinarri, haienak idatziko dituzte.
- Biografiak elkarri azalduko dizkiogu, dagozkien kanteekin batera, nahi izanez gero.

OHARRA: biografiak idazteko informazioa bilatu beharko denez, lan hau egun bitan bana dezakegu: lehenengo egunean, musikariak aukeratu eta taldetxotan informazioa nola bildu erabakiko dute; bigarrenegun, lortutako informazioarekin biografiak idatzi, eta elkarri azalduko dizkiote.

B.2. KLIKA KORRIKA 2019 kanta

- Ikasleek, binaka, eskaintzen zaizkien hitzen sinonimoak bilatuko dituzte kantaren hitzetan (3. or.).

ERANTZUNAK:

ARINEKETAN: korrika	GORDELEKU: aterpe	IRMOA: sendoa	ZOLI: ozen
DAITEKEEN: posible	HAUTUA: aukera	ISIOTU: piztu	ZIMENDU: oinarri
EGUNDO: inoiz	HOTSA: soinua	JOMUGA: helburu	

- Kantaren hitzak ikasten saiatzeko, "KORRIKAren kanta osatzen" jokoa egingo dugu. Prozedura 3. orrialdean dago.
- Kantarekin amaitzeko, ikasleek, taldetxotan, bestelako estrofaren bat asmatuko dute. Horretarako, nahi dutena egin dezakete: kantaren estrofa bati hitzak edo esaldiak aldatu, edo erantsi, estrofa gehiago sortu...
- Estrofa ozen irakurri edo, animatuz gero, abestu egingo ditugu.

B. DENBORA-PASAK

- Denbora-pasak eskolatik kanpo egiteko proposatuko diegu ikaskeei: epe bat jarriko dugu, eta, nahi duten bidea erabiliz (Interneten nabigatu, lagunei galdetu...) erantzun zuzenak aurkitzen saiatuko dira (4. or.). Behin epea beteta, erantzunak talde handian alderatu eta zuzenduko ditugu.

ERANTZUNAK:

1-a	7.
2-b	1: 4. KORRIKA (Lontxo Aburuza, Xanti eta Maider)
3-c	2: 2. KORRIKA (<i>Akelarre</i>)
4-a	3: 1. KORRIKA (Xabier Amuriza)
5. aňiketari, lasterka, antxintxika, korrika.	4: 3. KORRIKA (<i>Egan</i>)
6. mugimenduan, misio bat, da kontsigna, antiheroia.	5: 8. KORRIKA (Tapia eta Leturia)
	6: 12. KORRIKA (Fermin Muguruza)

“KORRIKAREN KANTA OSATZEN” JOKOA

Joko honetan, “KORRIKAREN kanta osatzen” ikus-entzunezkoa erabiliko dugu ordenagailuaren pantailan, telebistarenean edo beste edonon jarrita ikasle guztiek aldi berean ikus dezaten.

Jokoaren helburua

- “KLIKA KORRIKA 2019” kanta bederatzia ataletan banatu dugu. Atal bakoitzean kantaren estrofa bat dago, eta jokoaren helburua da atalak osatzeko falta diren hitz guztiak ondo kokatzea (aukeran izango dituzte; direnak eta zenbat faltsu).

Jokoaren arauak

- Ikasleek binaka jokatuko dute. Eskolan ikasle gutxi baditugu, bakarka joka dezakegu. Jokoa irakasleak bideratuko du.
- “KORRIKAREN kanta osatzen” ikus-entzunezkoa martxan jarriko dugu.
- “Gelditu” adierazten duen ikurra agertzen den bakoitzean bideoa eten egingo dugu.



- Ikasleei hutsuneak betetzeko denbora utziko diegu: paper batean idatz ditzatela.
- Asmatu duten jakiteko, bideoa martxan jarriko dugu.
- Prozedura hau errepikatu egingo dugu, kantaren 9 atalak osatu arte.

